

noaua

**Irailetik aurrera,
eskolaz kanpoko aisialdi
eskaintza eraberritua**

**Joxan Artzeren omenezko
eguna, iruditan**

**Kalezar ostiral honetan
murgilduko da jai giroan**



Segalari usurbildarrak, lehia betean

noaua euskararen aterpe

Bazkideok egiten dugu posible

Astekaria, noaua.eus, Kulturaldia, Santo Tomas azoka, Inauteri Jaia, Udajolas...

**BAZKIDE EGIN
ZAITEZ!**
eta opari eder
hau eskuratu!



Bazkidetza: urtean 40 euro.
Informazio gehiago: 943 36 03 21
elkartea@noaua.eus



FUNERARIA GONZALEZ EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK




www.funerariagonzalez.es

Noaua! App

Herriko berriak beti soinean

Albisteak, agenda eta askoz
gehiago Noaua! app berrian.
Deskargatu doan eta jaso herriko
azken berriak mugikorrean.

Eskuratzeko:



[www.noaua.eus](http://www.noa<u>ua</u>.<u>eu</u>s)

Albiste iruditan

Esperientzia Eskolakoak oporretara doaz

Jakinminak, ikasteko gogoak mugarik ez duela erakutsi dute beste behin, ondoko irudian dituzuen herritarrok. Esperientzia Eskolako kideak dituzue. Ekainaren 12an amaitu zuten ikasturtea, Usurbilgo Udalaren eskutik jasotako diplomekin. Aurretik, Udalarri herriari lotuta bideratuak zizkioten eskaerak, kezak, galderak aztertzen ari zirenez Xabier Arregi alkatearekin eta Jone Urdanpilleta Gizarte Ongizateko zinegotziarekin.

Irailtik ekainera, astearte arratsaldero bildu ohi dira Esperientzia Eskolakoak, bi orduz Artzabalen. Lagun artean denetarik ikasgaiak jorratzen dituzte, modu ireki eta parte hartzailean. Eskolako kide izateko ez da aurretiazko esperientzia edo ezagutzarik behar. Sustatzaile eta parte hartzaileek modu positiboan baloratzen dute egitasmoa.



Irailtik ekainera, astearte arratsaldero bildu ohi dira Esperientzia Eskolakoak, bi orduz Artzabalen. Oporrak hartu berri dituzte.

Laburrean

Furgobaratza, Baratze Parkean

Agerreazpiko Baratze Parkera dator Furgobaratza. Ekainaren 25ean astelehena, 18:00-19:30 artean, "Nola egin aurre gaixotasun eta izurriteei" izeneko taillera antolatu dute.

Hurrengo odol ematea, uztailaren 9an

Jaien ondorengorako egin dute deialdia. Hurrengo odol ematea uztailaren 9an astelehena izango da, arratsaldeko 18:00etatik 20:30era, ohiko tokian: Usurbilgo anbulategian.

Oilasko biltzaileen bazkaria Kalezarren

Urtero moduan, Kalezarko jaien aurretik, ekainaren 15etik 21era eskuratu ahalko dituzue Kaffa kafetegian. Ekainaren 23an ospatuko dute San Juanetako oilasko biltzaileen bazkaria 14:00etan.

noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkartea@noaqua.eus ||| www.noaqua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatorak:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaqua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaqua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon

Galbete.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon
Etxabe, Alazne Begiristain, Denis
Elortza, Pello Aranburu, Xabier
Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde,
Nerea Zinkunegi, Maialen
Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta
Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herra!



Aritz Gorriti

Joan eta etorri, baina dena berdin

Batzuk badoaz, besteak badatoz. Joan etorrian, mugimendua irudikatzen, aldaketa saltzen, ziklo berri batean gaudela sinistarazten ari zaizkigu. Prozesu honen abiapuntuak berak ordea aldaketa benetakoa ote den gutxienik zailantzan jartzen du.

Ustelkeriaren ikur bilakatu den alderdi bat “boteretik alboratzeko” hamaika une, aukera izan dira urteotan. Baina itxuraz halakorik gertatu ez zela barneratua zigutenean, egun batetik bestera gobernu bat desegin dute, eta egun gutxitan (nik behintzat marka hauste gisa Guinness liburuan sartuko nuke) osatu da bestea.

Azkar batean. “Berritu

ala hil” leloa presaren presaz gauzatu nahiko balute bezala. Aldaketa gauzatzea, liburu bateko orri batetik bestera igarotzea balitz bezala. Kolektibo ezberdinen oihuak entzun dituztela esanez. Ustelak gutxi batzuk izan, haiek kendu eta arazoak bere kasa konponduko balira bezala. Berritu bai, kontua da azalekoa ote den berritzea. “Zu bota ni jartzeko” ahalegin horretatik haratago, benetan beste zer edo zer badagoen edo ez.

Gure kontura bizi den familia ezagunena ere, itxuraz elkarren ondoan egotea jasangaitza suertatzen bazaie ere, oraingoan gogotik eta indarrez batu dira, “kanpotik” familiara etorritako azkenari betidanik denek egindakoa egozteko. Sakrifikatzeotan “akoplatua”

sakrifikatu behar izaten delako, detaile gisa, denboraldi baterako ostatu berri bat aurkitu diote azkena heldutako hari. Itzalpea, urte gutxi batzuetarako bada ere. Denen “bekatuak” ordain ditzan, denek orain arte bezala bizitzen segitzeko.

Bere burua hain katolikotzat duen familiak, “duenari kendu ez duenari emateko” esaldi hau praktikara ondo baino hobeto eraman du betidanik, kontrako bertsioan noski. Eta orain, egunotan izan duten espetxeratzearekin estali nahi dute gutzia. Justizia benetakoa badela sinistarazi.

Zenbat aldaketa, “ezuste” horiek titular batetik baino gehiagotik helarazi nahi duten mezua. Irudi garbiketa betean da estatua. Baina hori, irudi kontutik haratago aldaketaren

errezeta beste zer baitetan nabariko dela sinesteak zaila dirudi. Beti bada eta argitu ezin den iluntasuna, garbitu ezin litekeen zikinkeria. Aurrepegi aldaketan formularekin probatzen ari dira orain. Zu kendu ni jartzeko. Zu barrura gu salbatzeko. Zuk ordaindu denon partez. Zu errudun, gu errugabe izateko.

Lehertu dira krisi garaian hainbat burbuila, baina batean oraindik ez du zulo txikiarik eragin. Begi bistakoa da zeinetan. Ospa egiteko hamaika, hamabi eta hamahiru arrazoi, pilatzen doazkigu; azkena, Altsasuko gazteak pairatzen ari diren injustizia latza. Eta zoritxarrez, arrazoi gehiago etorriko dira aurrerago, etorkizuna norabidez aldatzen ez dugun artean.

Maialen Unanue | Garazi Lizaso Manterola | **Aritz Gorriti** | Luis Aranalde | Imanol Ubeda | Idoia Torregerai | Luken Arkarazo

Irailean hasiko dira igerileku txikia handitzen

Iaz iragarri bezala, Udala Kiroldegiko igerileku txikia handitu eta irisgarri izateko lanak bideratzera doa laster. Aurreikusitakoa baino zertxobait beranduago. Uztailean ez, irailean abiatuko dituztela berri eman dute Udaletik. “Lanak esleitzeko beste lehiaketa bat egin behar izan da, eta horrek atzeratu egin du prozesu osoa. Edonola ere, gauzak ondo bidean, lanak irailean hastea au-

reikusten da. Ondorioz, udan, Kiroldegiko funtzionamendua betikoa izango da, eta igerilekua irekita egongo da”, berri eman du Udalak. Abuztuko lehen hamabostaldian (abuztuaren 1etik 15era) itxita egongo da Kiroldegia, urtero moduan porrengatik.

2018ko aurrekontuetako inbertsio nagusia izango den honetara, 650.000 euroko inbertsioa bideratuko du Udalak.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du. “Igerilekura sartzeko koxka kendu egingo da, muga handia baita elbarritasun bat dutenentzat, eta igerileku handiaren maila behera jarriko da; eta, beste alde batetik, Kiroldegiko sarrerari zati bat kenduta, handitu egingo da nabarmen. Halaber, lan horiek baliatuko dira, ikusten ez den eta igerilekuaren azpian dauden instalakuntza gutziaz

berritzeko (tuberriak, kalderak, berogailuak...). Premia handia dute horretarako”, ohartarazi dute Udaletik.

Obren atzeratzeak ez du abonuetan eragingo. “Obrak beranduago hasiko badira ere, horrek ez du eraginik izango abonuetan, eta urte hasieran esan bezala, %20ko konpentsazioa berdin-berdin aplikatuko die Udalak Kiroldegiko abonatuiei”.

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOUAik ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: ekainak 29. Idatzia ekartzeko azken eguna: ekainak 25.

Troiako pasabidearen arriskua agerian

Ekainaren 10ean Gure Esku Dagok deitutako giza kate eguneko argazkia duzue ondokoa. Eguzki Talde Ekologistak helarazi du NOAA!ra. Mobilizazio amaieran, Troia inguruan N-634 errepide bazterrean katea osatzen lagundu zuten hainbat herritar dituzue aipatu errepidea igaro ostean, Lasarte-Oria edo Zubietta aldera jotzeko segidan dagoen trenbideko pasabidea zeharkatzen.

Eguzkitik ohartarazi dutenez, agerian geratu zen berriz, Troia inguruko pasabide honek herritarren segurtasunerako duen arriskua. “Mila lasarteoriatar baino gehiagok parte hartu zuten igandean Gure Esku Dagok antolatutako ekimenean. Osatu behar zuten kate-tartea N-634 errepidean zegoenez, horietako askok, zubietarrek bezala, Troiatik pasatu behar izan zuten, eta, tropelaren babesean eta GED-ko antolatzaileen zaintzapean joan ziren arren, berriz ere bertatik bertara frogatu ahal izan zuten zer arriskutsua den pasagune hori. Lehendabizi, trenbidea pasatu egin behar da, eta, trenbidea pasatuta, zuzen-zuzenean N-634ra ateratzen da. Eta han ez dago espaloirik ez bazterbide zabalik”, gogorarazi dute Eguzki taldeak.

Egunerokoa, “bada, Troiakoa da Lasarte-Oriatik eta



Gure Esku Dagoren giza katean eginiko argazkia. Irudia eta informazio iturria: Eguzki.

EGUZKI TALDEA

“Gauzak dauden bezala jarraituz gero, denbora kontua baino ez da ezbehar berriren bat gertatzea. Penagarria litzateke gertatu arte soluzioari ez ekitea”

Zubietatik Usurbilera (eta alde-rantziz) oinez joateko bide naturala. Ez bide normala, ordea, pasagune horren arriskuak diuasorio bihurtzen duelako”.

Konponbide eskaera lehenbailehen

“Puntu Beltzik Ez” herri dinamikak azken hilabeteotan plazaratu izan duenarekin bat egiten du Eguzki. “Usurbilgo Udalak, Eusko Trenek eta Foru Aldundiak pasagune horri lehenbailehen soluzio bat eman behar diote. Alde

batetik, arriskua bera saihesteko, jakina, eta, bestetik, Lasarte-Oria, Zubietta eta Usurbilen arteko oinezkoen lotura duin bat behingoz bermatzeko”.

Gaineratzen dutenez, “ba omen dago soluzio tekniko bat. Izan ere, iaz, Usurbilgo Udalak, Eusko Trenek eta Foru Aldundiak trenbide eta errepide gaineko pasabide bat egiteko proiektu bat landu zuten. Badirudi Udala eta Eusko Tren badaudela beren partea jartzeko prest; Aldundia, berriz, orain arte, behintzat, uzkur agertu da”.

Gai honi berehalako irtenbide bat emateko beharra dagoela gogorarazten du Eguzki. “Troian istripu eta eskapada dezente izan dira. Gauzak dauden bezala jarraituz gero, denbora kontua baino ez da ezbehar berriren bat gertatzea. Penagarria litzateke gertatu arte soluzioari ez ekitea”.

Jakin Jardunaldietan izena emateko epea zabalik da

‘Utopia 68/18. Iruditeria berrien bila’ udako ikastaroa Usurbilen egingo da, uztailaren 12 eta 13an, “gogoeta kolektiboaren bitartez, nora goazen edo nora joan nahiko genukeen begitantzeko”.

UEUren, Usurbilgo Udalaren eta Jakinen elkarlanaren emaitza da udako ikastaroa. “Iaz Jakin eta Usurbilgo Udalarekin abiatu genuen bideak fruitu ederrak eman ditu”, azaldu zuen Iñaki Alegria UEUko zuzendariak. Eta bide horretan jarraitzeko borondatea berretsi zuen Xabier Arregi Usurbilgo alkateak: “Usurbil hitzaren, gogoetaren eta solasaldi pausatuaeren parada izatea nahi dugu”.

Utopia berriak aztergai

Lorea Agirre Jakineko zuzendariaren esanetan, “gaur egun eta hemen utopia zeri deitzen diogun aztertzeko, gizartea eraldatzeko borroka eremuak non dauden zehazteko, eta zer iruditeria kolektibo eraiki eta partekatzen ari garen hausnartzeko, nola berritu dezakegun pentsatzeko balioko du Jakin Jardunaldiak”.

Izen-ematea

www.ueu.eus
943 82 14 26
i.iciar@ueu.eus

Matrikula-prezioak:

Orokorra, 10 euro.

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITAR TEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak

urdaintzi@euskalnet.net
IT-ak egiten dira

649 43 54 75
943 36 72 64

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

Eskolaz kanpoko aisialdi eskaintza eraberritua

LH-ko ikasleentzat, irailetik aurrera

Eskola Kirolerako proposamen eraberritua aurkeztu dute Udarregi Ikastolak eta egitasmo honetara batu diren Usurbilgo Udalak eta NOAUA! Kultur Elkartek; “Zirimara, gelditu gabe jardunean”. Eredu berri bat sustatzeko beharrak batu ditu eragileok, “kirol ikuspegitik aisialdira jauzia emateko”.

Bi urtez eginiko lanketaren emaitza, aurreko astean aurkeztu zuten, kultur etxeko auditorioa goraino bete zuten LH 1-4 maila arteko ikasleen gurasoen aurrean. Argi utzi nahi izan zuten, herri dimentsioa eman nahi dion eskaintza eraberritu hau ez doala kirola egitearen aurka, ezta gutxiagorik ere. “Herri honetan kirol eskaintza aberats, on eta kalitatezkoak ditugu”, nabarmen-tzen zuten Sutegiko aurkezpenean. “Baina falta da esparru horretan, beste eskaintza bat emango duen proposamen bat”, gaineratzen zuten. Aspal-diko kezka bati erantzun nahi diote. Hain zuzen, Eskola Kirolak “aisiak kirola barnebiltzen du, baina kirolak askotan aisia alboratu dezake”. Hutsune hori betetzera dator, irailetik aurrera martxan jarri nahi duten Eskola Kirolari lotutako proposamen eraberrituak.

Proposamen berriak “inklu-



Bi urtez eginiko lanketaren emaitza, aurreko astean aurkeztu zuten Sutegin. Auditorioa goraino bete zuten LH 1-4 maila arteko ikasleen gurasoek.

EGITASMO BERRIA

“Ikaslea bera jarri nahi da erdigunean, bere gaitasun eta beharrak”

siboagoa, ziurgabeagoa, anitzagoa, zabalagoa, koherenteagoa” izan nahi du. Esperimentatuz, ikasi, bizi eta gozaztea bultzatu nahi du.

“Ez goaz lehiatzera”

Ikaslea bera jarri nahi da erdigunean, bere gaitasun eta beharrak. Ikuspegi argi batekin; “ez goaz lehiatzera, ontzat ematen

ditugu bakoitzaren lorpenak”. Aisialdi tartea beraiek kudeatzea ahalbidetu, “denbora libre eskaini beraiei, haien interes eta zaletasunak erakusteko”.

Eta sormenari bidea emateko. Aisialdiko eskaintza hain egituratua egonik, “haien sormena itzaltzen” joaten baita, Sutegin ziotenez. Horregatik, orain arteko ohiko kirol ekin-tzez gain, eredu zabaldu nahi dute, bestelako jarduerak ere sustatu asmo dituzte. Azken Ikastola Eguneko jolasetan egin zuten moduan, dantza, antzerkia... Orduko hartan, haurrekin batera gurasoek ere

parte hartu zuten jolasetan. Egitasmo honetan gurasoek ere eskuhartze aktiboa izatea sustatu nahi da.

Herri dimentsioa

Guztia, ohiko kirol instalakuntzetatik kanpo, kalean. “Goazen Kiroldegitik ateratzera, goazen kalera! Usurbil oso zabala da, toki eta esparru desberdinak daude. Naturak emandakoarekin jolastera”, garaian garaiko ekintzak egitea proposatzen dute, herriarekin lotura bilatuz. Herri dimentsioa eman nahi zaio Eskola Kirolari.

Astean bitan batuko dira

Eskola Kirolaren saioen orain arteko formatua bera ere aldatu beharra ikusi dute. Astean bi saio egitea proposatzen dute. Bakoitza bi ordukoa, besteak beste, “haurrei “denbora eman, eseri, proposatzen dutena antolatzeko” eta egite-

ko.

■ Noiz hasteko: 2018ko irailetik aurrera.

■ Nori zuzendua: LH 1, 2, 3, 4 mailetakoko ikasleei.

■ Bi egun: astearte eta ostegunak, 16:30-18:30 artean.

-Astean behin parte hartzea

erabakitzen dutenek: LH 1-2 asteartean, LH 3-4 ostegunetan.

■ Saioen egituraketa: 16:30-17:00 Harrera eta antolaketa.

17:00-18:15 Atal nagusia.

18:15-18:30 Lasaitzea, saioaren balorazioa.

■ Hiru hilean behin: familia plana, haur eta gurasoentzat.

■ Izen ematea: Ekainaren 21era arte.

Egitasmoaren sustatzaileak:

Udarregi Ikastola, Usurbilgo Udala eta NOAUA! K.E.

Adinean aurrera egin ahala, parte hartzea beherantz

Joan den astean Sutegin aurkezturiko proposamen eraberritua, eskolaz kanpoko eskaintza honen gaineko diagnosiaren lanketarekin abiatu zuen Udarregi Ikastolak. Hainbat datu interesgarri bildu zituzten azterlan horretan. Esaterako, LH1- DBH2 artean ikasle ia denek parte hartzen zutela Eskola Kiroleko ekintzaren batean. Aldiz, DBH 3-4 mailetan jaitsiera nabarmena ematen zen, parte hartzeari zegokionean. Are gehiago 18 urtetik gorakoek artean. “Kirola modu egituratuan praktikatzen zuen gazte kopurua %10a zen gutxi gorabehera”, Sutegin berri eman zuten. Datuotatik ondorioztatu zuten, ez zen betetzen Eskola Kirolaren helburu nagusia; alegia, ohitura osasuntsuak sustatu eta gerora gazteek kirola egiten jarraitzea.

“Kaleko jolas librea desagertzen ari zen”

Datu gehiago. 10 urtetik gorakoek artean, eredu lehiakorra gailentzen zihola jabetu



10 urtetik gorakoek artean, eredu lehiakorra gailentzen zihola jabetu ziren, Eskola Kirola ez zela inklusiboa, eta jarduera gehienak instalakuntzetan bideratzen zirela, ziurgabetasunik gabe.

ziren, Eskola Kirola ez zela inklusiboa, eta jarduera gehienak instalakuntzetan bideratzen zirela, ziurgabetasunik gabe. Kezka eragiten zieten baita, “eskaintza guztia antolatua” egoteak, programazio zehatzik ez egoteak, “kaleko jolas librea desagertzen ari zela” ikusteak eta gaztetxoek

euren aisialdiko tartea euren kabuz kudeatzeko aukerarik ez zutela sumatzeak. Hezitzaileen profila kirol mundura gehiago bideratua zegoen diagnosi honen arabera, ekimen honetan ez zen herritarren edo gurasoen parte hartzerik sustatzen eta eskaintzak ez zuten inolako loturarik herriko ekitaldiekin.

Gainera, ikastolak azken urteotan eginiko eraldaketa pedagogikoarekin koherentzia falta zegoela ere ikusi zuten. Datuok eskutan, lan talde bat osatu zuten ikastolako hezitzaileekin eta Hariketaren taldearekin, egunotan plazaratu duten proposamenari forma emateko.

Herri dimentsioko egitasmoa

Ikastolak azken urteotan pedagogikoki izan duen eraldaketaren testuinguruan bideratu da Eskola Kiroleko barne hausnarketa prozesua. Egitasmo honetan bidelagunak batu zaizkio orain Udarregi Ikastolari; Usurbilgo Udala eta NOAUA K.E.

Udalak begi onez ikusten du proiektu hau eta beharrezko baliabideak jarriko dituela iragarri zuen Sutegiko aurkezpenean. Hausnarketa sakon batetik abiatutako proiektua da Udalaren esanetan, “ibilbide luzekoa eta handitzen joan nahi duena, herri dimentsioa har dezakeena. Aisialdian

eta herri bizitzan kokatu genezakeena”, Alaitz Aizpurua zinegotziak nabarmendu zuten.

NOAUA! Kultur Elkarteak ere bat egin du proposamen eraberritu honekin. “Lehen unetik gustatu zitzaigun”, zioen kultur elkarteko ordezkari Pello Aranburuk. Erabat bat dator, NOAUA! euskal kulturaren eta euskararen sustatzaile den heinean. Euskara bultzatzeko eremu honetan, aisialdian ere eragiten dihardu gainera. “Faltan botatzen genuen kirol arloan beste zerbait bultzatuko zuten ekimen bat”, zioen Aranburuk. Proposa-



Egitasmo honetan bidelagunak batu zaizkio orain Udarregi Ikastolari; Usurbilgo Udala eta NOAUA K.E.

men honek “etorkizun polita planteatzen du gure ikuspuntutik”.

Aisialdi taldea sortzeko aukera

Sutegin iragarri zuten, aurrera begira Eskola Kirolaz gain bestelako jarduerak bildu ditzakeen “aisialdi talde bat sortzeko aukera buruan dugu”. Hartuemanetan dira herriko gazteekin. Egitasmo honen sustatzaileen kezka bera partekatzen dute. Kirol jardura federaturik egiten ez duten gazte askok ez dutela inolako ekintzetan parte hartzen, “haietako askok ez dutela lehia eredu bat nahi”. Elkartzeko aukerak izan badirela diote, “herriari eskaintza zabal bat emateko adin tarte ezberdinetan”.

Harrera Elkarte, etxeraturikoei bidea egiten laguntzen

2016az geroztik Etumeta AEK euskaltegiko egoitzan, udal lokaletako batean kokatua dago espetxetik irten nahiz erbestetik bueltan datozen herritarrei babes eta asistentzia eskaintzen dien Harrera Elkartearen bulegoa. Maiatza amaierako udalbatzaren osoko ohiko bilkuran, lokal honen prekariozko lagapena beste 4 urtez luzatzea erabaki zuten. Bertara jo dugu. Harrera Elkarteko kide Jon Ugarteren eskutik jaso dugu bilgune honen jardunaren gainerako xehetasunen berri, Udalak lokala uzten segitzeko hartutako erabakia eskertzearekin batera.

NOAUA! Eremu ezberdinetako laguntza eskaintzen duzue?

Jon Ugarte: Asistentzia orokorra eta giza esparruari begirako asistentziak: administrazioan, osasungintzan... Denek ez dute gure beharra izaten, baina hurbiltzen direnei, giza arloko behar guztiei erantzuten saiatzen gara. Hainbeste urte espetxean egon den presoak kalean ikusten dutenean, jendea lasaitu egiten da. Iruditzen zaie arazoa gainditua dagoela, baina pertsona horrek laguntza behar izaten du. Besteak beste lan munduratzeko laguntzen dugu. Familia erantzunkizuna dutenei lehenetsia ematen



Jon Ugarte, Harrera Elkartearen egoitzaren atarian.

JON UGARTE

“Denek ez dute gure beharra izaten, baina hurbiltzen direnei, giza arloko behar guztiei erantzuten saiatzen gara”

diegu. Iaz adibidez, 22 pertsona bideratu genituen lan mundura.

Zeintzuk izan ohi dira sortzen diren beharrak?

Alde batetik, egokitzapena. Ez da gauza bera 7 urteren ostean espetxetik irten denaren kasua. Gizartea ez zaio hainbeste aldatu, inguruak ere gutxi gorabehera lehengoak izan-

ten segitzen du. Baina 15-30 urte espetxean egin dituzten horiek irtetzen direnean haien mundua aldatua dago. Haiek ere espetxean aldatzen joan dira. Egokitzeko zailtasun gehiago sortzen dira. Ez dute lanerako formazioa, ezin dute lan munduan integratu, lana sortzen bada oso prekarioa da, baliabide urriak dituzte, etxebizitzaren premia askotan. Adin jakin batetik aurrerakoak dira laguntza gehien eskatzen dutenak orain. Jende piloak ari zaigu hurbiltzen, jubilatze-ko adinean, pentsiorik ez edo pentsio oso txikia dutelako.

Epe luzerako laguntza eskaini beharrean aurkitzen zarete beraz.

Beste laguntza lerro bat ireki

zaigu. Nahiz eta duela urteak espetxetik irten, pentsioa jasotzeko ordua heldu eta pentsiorik gabe daudenena. Espetxetik irtetzen direnei ziurtatzen diegu orain arte ematen ditugun laguntzak, baina beste perfil honi begira lanean hasteko asmoa dugu. Berriki egin dugun batzarrean, gaiaren zentralitatea honen bueltan izan dugu, ez guk irtenbide iraunkorrak ditugulako, egundoko dirutza beharko baikenuke laguntza bideratzeko. Kontuan izan, bi-ziarteak dira laguntza mota horiek.

Guk ez dugu ikusten gure laguntza kaxa hain indartsua hemendik 8-15 urtera horri erantzun bat emateko. Baina egoera politikoa nola aldatu zaigun ikusita, espero dugu une batean erakundeek eta eragile politikoak kontzientziaztea, eta ia espetxealdia kotizatu bezala kontuan hartzen duten. Zergatik? 1977ko Amnistiaren eta Indultuaren Legearekin, frankismo garaian egondako presoek onartu zieten espetxealdia kotizatu bezala. Aurrekaria bada. Hemen ez dakit zer epe beharko dugun, baina irtenbide naturala eta logikoa horrek beharko luke. Gu bitarte horretan saiatu beharko gara, larri dagoenari laguntzen.

“Gure oinarri ekonomiko sendoena gure bazkideak dira”

NOAUA! Azken hilabeteotan, lehen gradua gainditzeko egin den eskaera ere zentzu hone-tan ulertu behar da.

Jon Ugarte: Kaleratzea errazteko da eta bigarren gradua behar delako gutxienez, espetxeetan lan munduan integratzeko. Guri ez digute gure jarraitzearen arabera lehen graduan jartzen. Zigor politikoa moduan.

Honi guztiari aurre egiteko nahiko baliabide biltzea, au-

rrera begirako zuen erronketako bat izango da.

Elkartea 2012an legez-tatu genuen. Tarte honetan, urtero diru ekarpena egiten duten 3.000tik gora bazkide ditugu. Hilean 5 euro eskatzen ditugu, urtean 60. Hortik gora edo behera norberak zenbat diru eman neurtzeko aukera du. Gure oinarri ekonomiko sendoena gure bazkideak dira. Zenbat eta bazkide gehiago izan, neurri egokiagoan bide-

ratzen diegu laguntza behar dutenei. 20 bat bazkide badira Usurbilen. Web orritik (harre-raelkartea.com) erraz egiten da bazkide-tza, bestela bulegoa hemen dago, AEK ondoan.

Aurrera begira oraindik izango da Harreraren beharra?

Gure helburua desagertzea da. Desagertzea, ez dagoelako presorik barruan, irtendakoei neurri batean edo bestean bideratzen lagundu izan diegulako

eta erakundeek bere ardura publikoak hartu izan dituelako jende honentzat. Gatazka politikoaren ondorioez hitz egiten dugunean, espetxean badira ondorio bezala gehienek kontuan hartzen dituzte, baina kanpoan ere ondorioak dira. Hor ardura batzuk hartu behar lituzkete erakunde publikoek eta behin horiek bideratzen badira eta guk gure trantsizioa amaitzen badugu, gure bidea hor amaituko litzateke.

Segalari usurbildarrak, lehia betean

Belarra moztzen iaiotzen eta gozatzen dabilta azken urte honetan Garbiñe Elizalde eta Jugatx Agirre usurbildarrak. Almitza Segalari Elkarte kide dira. Txapelketa garai betean diren honetan, zaletasunean bilakatu zaien kirol jarduera honetara gerturatu gaitu Jugatxek lerrootan.

Nolatan hasi zineten segan?

Jugatx Agirre: Garbiñe Gaztelun bizi da eta bertan bizi da Joxe Gabirondo. Eskola modukoa du Gabirondok, inguruko gazte eta umeentzat. Berak kirol jarduerara hau mantendu nahi duelako irakasten du. Garbiñek eman zidan eskolaren berri, eta iazko uztailean proba moduan hasi ginen.

Urtebeteko bidea egin duzue. Segarekin lehen hartuemanan izan zen?

Aurrez herri kirolekin ez dugu inongo harremanik izan. Lehenengo aldi horretan, Gazteluko futbol zelaira joan ginen segan aritzera, gero Tolosako auzo batera. Hasieran desastre, baina orain hobekiago.

Entrenamenduak, nolakoak dira?

Azarora arte astean behin aritzen ginen. Orditik apirilera geratu egiten da, belarra ez baita hazten. Apiriletik hona astean behin biltzen gara, batzuetan bitan ordubete edo ordu eta erdiz Tolosaldea inguruan, belarra egon eta segan aritzea uzten diguten lekuetan. Kontua da belarrarekin beti daudela arazoak, ze lursaila duenak ez du nahi izaten utzi horretarako, jendeak bere modura moztu nahi izaten baitu belarra, bere makinekin. Beti horren mende izaten gara. Eskean aritu behar gara. Eta behin ebakitako belarra noiz haziko zain egon behar duzu.

Horrek txapelketetarako lur eremuak hautatzea zailduko du



Jugatx Agirrearen esanetan, "fisikoki ez da punta puntan egon behar. Jarduera tekniko bat da. Nahi duenak beraz lasai asko proba dezala. Gu ere kalekoak izanda, aritu gara".

JUGATX AGIRRE

"Aurrez herri kirolekin ez dugu inongo harremanik izan. Hasieran desastre, baina orain hobekiago"

noski.

Txapelketan parte hartzeko gonbidatu ziguten eta guk baietz. Lehenengo saioa Etxalekun izan zen, Nafarroan. Bigarrena Berastegin, ekainaren 30ean arratsalde. Azkena, uztailearen 29an izango da Altzon. Txapelketarako 5.000 metro karratuko eremua behar izaten da. Lur ona, nahikoa laua izan behar du eta herriatik gertu samar egotea.

Baldintza asko bete bete behar.

Denera helduetan, 8 emakumezko eta 12 gizonezko gara. Gero 18 urtetik beherako emakumezkoak 4 eta gizonezkoak 6. 10 urteko batzuk erakustaldia egiten dute. Gaztetxoek 10 urte izango ditu, 70 urtekoak ere badira. Bakoi-tzak bere metro karratuetarako behar duen eremua gehi gero entrenamendurako zerbait gehixeago behar duzula, azkeneko 5.000 metro karratu behar dira eta zaila da halako tamainako lur eremuak aurkitzea.

Inguru ezberdinetako kideak

dituzue taldean.

Parte hartzaile gehienak Tolosaldekoak dira, Zaldibia, Itsasondo, Zeanuri, Altsasu aldekoak baita. Badira gazte batzuk Berueteoak, Basaburuakoak. Whatsapp talde bat dugu eta hor aipatzen da, non geratuko garen.

Ligaxka hasi duzue. Zuentzat lehenengoa izan zen proba nola bizi izan zenuten?

Zozketa bidez erabakitzen da zer lursail egokitzen zaizun. Gure kasuan 35 metro karratuko eremua da. Emakumezko helduak beti lehenengo txandan izaten gara. Tokatzen zaizun lursaila moztuta, izkinak txukun orraztu behar dira, gero belarra ebakitzeko orduan zurretat zailtasunik ez izateko. Bi txandetan egin genuen. Garbiñe eta biok lehenengo txandan egokitu ginen. Azkarrenak minutu eta hogeian amaitu zuen. Nik 2 minututan amaitu nuen, Garbiñek hiru minututan. Proba azkarra da.

Zer moduzko esperientzia izan zen?

Urduri lehenengo aldia zelako, baina gustura, egindako lanarekin eta lehenengoa urtea izanda oso pozik. Saillapeneko lehen postuetan geratzen direnak urteak daramatzate, gaztetatik ibili dira segan. Beste lauak

gaudenak hasi berriak gara, edo bi urte daramatzagu.

Nazioarteko proba, Europarako puntuagarria.

Aurtengoa ez da puntuagarria. Aurten Euskal Liga bakarrik da. Hurrengo urtekoa bai izango da Europara begirakoa. Berez elkarte honek antolatzen du urtero nazioarte mailako proba hau, bi urtean behin Europara joateko. Nazioarte mailako proba da hau; zeinek lursail metro karratu batzuk ahal den azkarren eta txukunen ebaki.

Zeintzuk dira segan aritzeko baldintza egokienak?

Lurra nahiko laua izatea, belar txarrak ez izatea, oso luzeak, oso nahasiak ez izatea. Guri tokatu zitzaizkigun lurra onak ziren, belar onak. Egun horretan, gizonezkoak hasi zirenean ordea euria hasi zuen eta halere jarraitu egin behar. Euria egin da gero belarrak gehiago pisatzen du eta zurretat ahalegin handiagoa suposatzen du.

Segak, kanpotik ekartzen dituzue.

Gaur egun lehiaketarako segak askoz handiagoak dira eta ez dira hemen ekoizten. Garai batean bai egiten ziren, egun Austriatik ekartzen dira. Gero kirtena jartzea Asteasura eramaten dira, azkenean bakoitzaren gustu eta altueraren arabera egokitzeko, norbera ahalik eta erosoan aritzeko. Heldulekua hemen beti egon izan da eskuin aldera begira, nazioarte mailan ezker aldera izaten da. Orain geroz eta jende gehiagok ezker aldera izaten du.

Zuen erronketako bat, zaletuak erakartzea ere izango da.

Lehenengo proban, pertsona dezente bildu ginen, baina senide eta ezagunak gehienak. Edo nor ikusi eta animatzera joan dadila, garrantzitsua baita herri kirol gisa mantentzeko.

“Zihardutenean dihardugu”

Urtea hasiberria zenean izan genuen Joxan Artzeren heriotzaren albistea eta triste jarri ginen. Senideen alboan negar egin genuen eta agurra eman genion. Asko utzi digun gizona izan zen eta izango da Joxan Artze.

Gaztetan Euskal Herritik kanpora ibili zen, garai latzak, diktaduraren urteak ziren eta giro itxia eta itogarria zegoen. Kanpora ireki nahi izan zuen, egurastu, besteengandik ikasi. Ondoren herrira bueltan etorri eta gertukoa balioan jarri zuen. Aurrekoek egindakoari balore handia eman zion baina berriitu egin zuen. Idazteari ekin zion baina beste kultur-adierazpideekin batera landuta. Arrasto handia utziko zuen Ez dok Amairu taldeko partaidea izan zen.

Ez dok Amairu taldea desegin ondoren sortu zituen bere poemekin batera musika, antzezpena, irudiak eta performancea lotzen zituzten emankizun ausartak eta sentikorak, adibidez “Ikimilikiliklik!”, “Gizon haundia da mundua eta mundu ttikia gizona”, “Mundua gizonarentzat egina da, baina ez gizona munduarentzat” eta “Oihana auhenka”. Usurbilgo Dema-plaza inguruko etxeetako eta elizako paretetan irudiak proiektatuz hunkituta ikusi eta entzun genituen.



“Maitasunaz poema zoragarriak idatzi zituen eta herritarrok ere asko maitatzen genuela erakutsi nahi izan diogu”.

JOXAN ARTZE GUREGAN

“Lanbro artean ezkutatu zaigu baina Joxanek gure artean jarraituko du modu askotara, bere liburuetan, txalaparta-doinuetan, Askatasuna plazan dauden zeramikazko irudietan, gure bihotzetan...”

Zuaznabartarrekin txalaparta jotzen ikasi zuen, balioa eman eta ezaguna bihurtu zuen. Jexux anaiarekin batera ttakuntakun aritu zen, bi anai bat eginda. Diska bat ere grabatu zuten elkarrekin.

Idatzi zituen liburuak ikusi eta irakurritik konturatzen zara nola lantzen eta aberasten zituen. Ze hitz-jokoak egiten

zituen, nola jolasten zen hitz berari ertz guztietatik begiratu, nolako esaldi borobilak eta erakargarriak lortzen zituen. Liburuari beste dimentsioak aurkitzen zizkion, orrialdeak koloreztatzen zituen, irudiak sartu, hitzen kokapena zainduz, letren eredu eta tamaina ezberdinak konbinatuz...

Gertuko elementuak lagun zituen, liliak, loreak, txoriak, zuhaitzak, eguzkiaren argia. Azkeneko urteetan barnekoari begira jarri eta galdera sakonei erantzunak aurkitu zizkien.

Maitasunaz poema zoragarriak idatzi zituen eta herritarrok ere asko maitatzen genuela erakutsi nahi diogu, omendu egin nahi dugu. Udal ordezkariak, herriko kultur-taldeak eta banakoak hilabete hauetan biltzen aritu

gara bere omenezko eguna antolatzen. Bere poemak irakurri, elkarrekin konpartitu eta abestu nahi ditugu. Txalapartaren doinuak gurekin batera entzun ditzala nahi dugu. Berak hainbeste maitatzen zuen dantza ere izango dugu.

Lanbro artean ezkutatu zaigu baina Joxanek gure artean jarraituko du modu askotara, bere liburuetan, txalaparta-doinuetan, Askatasuna plazan dauden zeramikazko irudietan, gure bihotzetan...

Jexux Artze anaia omendu genuenean eslogan moduko bat idazteko eskatu genion eta horrekin bukatu nahi genuke “zihardutenean dihardugu”.

Joxan Artzeren omenaldia prestatzeko lan-taldearen izenean.



Joxan Artzeri egin zitzaion omenaldiak irudi asko utzi zituen. NOAUA'ren sare sozialetan eta noaua.eus web orrian aurkituko dituzue argazki gehiago.



“Iraganaren zama, historia, memoria, identitatea... Gai ugari dago nobelan”

Ugaitz Agirrek bere lehen nobela plazaratu du: *Tximeletak bizkarrean* (Susa). Sara da nobelako protagonista, 35 urteko emakume katalan bat. Egia-tasunezko eta fantasiatzko pasarteak uztartu ditu kontakizunean. Aurreko astean aurkeztu zuen liburua Donostian eta bertan esandakoak ondorengo lerrootan batu ditugu.

Ugaitz Agirrek Historia ikasi zuen unibertsitate garaian. Italian egin zuen karrerako azken ikasturtea. “Erasmus-etik bueltan, ipuin bat edo nobela bat idatzi behar nuela pentsatu nuen”, hortxe kokatu zuen *Tximeletak bizkarrean* (Susa) nobelaren ernamuina. Gogoeta bat egiteko asmorekin ekin zion idazketa lanari. “Historiaren inguruan zer nolako pertzepzioak jaso nituen argitzeko eta eguneroko bizitzan politikariek historia nola erabiltzen duten hausnartzeko”. Horiek ziren hasierako helburuak. Abiapuntua hori izanik ere, “kontakizuna dekoratu egin behar nuen”. Idazketa prozesuan aurrera egin ahala, ordea, dekoratua hasi zen gailentzen. “Historiaren pertzepzioa pisua galtzen joan zen eta gainontzeko trama guztia irabazten. Eta eskerrak, bestela oso astuna



Ugaitz Agirrek ekainaren 12an aurkeztu zuen bere lehen nobela. Ekainaren 27an asteazkenarekin, Sutegiko udal liburutegian aurkeztuko du. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da ekitaldia.

UGAITZ AGIRRE

Gorabehera handiekin bizi izan du idazketa prozesua: “batzuetan gustura eta beste batzuetan koadernoak leihotik behera botatzeko gogoz”

geratuko zen nobela”.

Gaurkotasan handiko gaiak

Egiatasunezko eta fantasiatzko pasarteak uztartu ditu nobelan. “Egunerokotasunari dagokionez, 2012-2013 urteetan kokatzen da nobela”, prentsaurrekoan zehaztu zuenez. Garai horretan puri-puritan zeuden gaiak jorratu ditu: “iraganaren zama, historia, memoria, genero harremanak, identitatea... Gai

ugari dago nobelan”. Buruko gaitzak ere bere pisua du Ugaitz Agirreraren kontakizunean.


“Ni nintzen horretaz aldendu nahi nuen”

Sara da nobelako protagonista. 35 urteko emakume katalan bat. Idazle ezaguna, Italian bizi da. Argitaletxeko editorearen deiak jaso ditu azkenaldian. Lan berri baten esperoan da, baina Sarak ez du ganorazko ezer aurkezteko. Horrelako profila duen pertsonaiari helteza erronka gisa hartu zuen Ugaitzek. “Ni nintzen horretaz aldendu nahi nuen eta ahal den profil diferenteena sortu”. Lotura bakarrenetakoa Historia bera da. Idazlea izateaz gain, Sara Florentziako unibertsitateko Historia irakasle baita.

Bost urte eskaini dizkio nobelari

Ugaitz Agirrek Historia ikasketekin darrai. Doktore tesi bat egiten ari da orain. “Euskal kontrakultura musikalaria buruzkoa”. Lehen nobelari “bost urte luze” eskaini dizkiola aitortu zuen aurkezpen ekitaldian. Gorabehera handiekin bizi izan du idazketa prozesua. “Batzuetan gustura eta beste batzuetan koadernoak leihotik behera botatzeko gogoz”. Iazko udan amaitu zuen eta azken hilabeteak Susa argitaletxeko kideekin eman ditu, edizio lanetan.

Azalean agertzen den irudia Paul Klee margolariarena da. “Walter Benjaminen esaldi bat agertzen da nobelan eta esaldi horretan Kleeren koadro bat aipatzen da, Angelus Novus izenekoa”. Koadro horretan oinarritzen da azala.



Paul Klee-ren *Angelus Novus* margoan oinarritzen da liburuaren azala.

“Fantasiaren erabilerak askatasuna ematen du”

Nobelaren idazkeraz eta estiloaz xehetasun batzuk aurreratu zituen Ugaitz Agirrek. Zehaztasunera jotzen duen idazle horietakoa dela adierazi zuen. Detaileetan erreparatzeko joera duela. “Esaten da irakurleari ez zaiola dena mastekatuta eman behar. Imaginaziorako tartea utzi behar dela. Nik xehetasun

guztiak azaldu nahi izan ditut; nik imaginatzen dudana bezala imaginatu dezan irakurleak”. Serieak, filmak, liburuak... asko izan dira idazketa prozesuan baliatu dituen osagaiak. Hango eta hemengo eszenak hartu eta moldatu dituela esan zuen hedabideen aurreko agerraldian.


Beste garai batzuen ebokazioa Memoria da nobelan landu duen gaietako bat eta horrek denboran jauziak egiteko aukera eskaini dio Usurbilgo idazle gazteari. “36ko gerra, Frankismoa... Horren inguruko gogoetak daude liburuan; beste denbora batzuk ebokatzen dituzten aipamenak”. Ugaitz

Agirreraren esanetan, “hor dago jolasa. Errealitatean bertan lotzen dira iragana, oraina eta etorkizuna”. Garai batetik besterako saltoak egiteko, fantasiaren mekanikaz baliatu da. “Askatasuna ematen du fantasiak. Justifikazio lausogo batzuekin jolasteko aukera eskaintzen du”.



SAN JOANAK
2018

gehiganni benezia



Esther Arrojeria, beste bi urtez Bera Beran

Es kubaloi jokalaria kale-zartarrak gutxienez beste bi denboraldiz segiko du Super Amara Bera Bera taldean lehiatzen. Berak eta taldeko beste kide batek, Maitane Etxeberriak klubarekin hitzarmena luzatu dute 2020ra arte. Klubetik oso garrantzitsuztat jo dituzte hitzarmen luzapenok, taldearentzako funtsezko jokalariai direlako. Jokalariai ere pozik agertu dira.

Arrojeria, belauneko lotailu gurutzatuak emandako buru-haustea atzean utzita, denboraldi osoa betetzeko gogotsu da. Eskuera dituzten titulu guztiak helburu izatea nahi du azken unera arte eta Europarako ibilbidea hobetu, aurrez, Txapeldunen Ligako atariko zaila izango dela aurreikusten duen arren.



Auzotarren arteko jokoetan eginiko argazkian da Bera Berako jokalaria.

Abuztuan ekingo dio Arrojeriak denboraldi berriari. Aurrez, uztailaren 24an hasiko da prestatzen, uztailaren 30etik abuztuaren 5era Kroazian jokatu den Unibertsitate mailako Mundiala.

Estitxu Berasategirekin batera, ligako txapeldunak

Kalezartarrak zer ospatu izango du asteburuko jaietan. Gogoan izan, maiatza amaieran, ligako txapeldun amaitu

baitzuen Bera Berak. 2012az geroztik bosgarrenez amaitu zuten garaile denboraldia. Bai Esther Arrojeriak, baita taldean lehiatzen ari den Estitxu Berasategi herritarrak ere.

Aldizkariko "Gazi, gozo, geza" atala orain ere noaua.eus web orrian



http://www.

Etxebizitzak, garajeak, motorra, lanpostuak, trukean... Zure oharra Internet bidez igo eta kontsulta dezakezu

www.noaua.eus

MERKATU TXIKIA

noaua

USURBIL

J. R. IBARGOEN

ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

Ondo pasa jaietan!

www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net jr.ibargoien@arotzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76

San Juanetan, Kataluniara itzuli aurretik

Dantza Eguneko saioaren ostean, 50. urtemugako Ikastola Eguna girotzen aritu ziren azkenekoz herrian. Kalezarko plazan ikusiko ditugu asteburuan, San Juanen amaiera girotzen. Haurren Eguneko ekitaldien ostean, eta sardina nahiz sagardoa dastatu aurretik, Usurbilgo Ttipika Dantza Gidatuen saioan gerri buelta mugitzeko aukera aparta izango da. San Juan Egunez (ekainak 24), 18:30ean hasita. Erromeria giroa ziurtatua izango da beraz astea amaitzeko.

Akordeoi joleen topaketara

Udaberrian han eta hemen plaza giroa sustatu ostean, Kalezarko saio eta gero atsedenditxoa hartuko dute Ttipikakoek. Indarberiturik itzuliko dira jardunera uztaila amaieran. Euskal Herritik kanpora doaz,



Ttipika San Juan Egunez arituko da Kalezarren, 18:30ean hasita. Erromeria giroa ziurtatua izango da.

iaz bezala, Kataluniara itzuliko dira. “Uztailaren 27ko gauean aterako gara Kataluniara eta hila 30era arte bertan egongo gara. Hiru kontzertu eskainiko ditugu”, berri eman diote Ttipika taldeak NOAUA!ri. Bira horretan Arsèguel bisitatuko

dute. Bertan ospatu ohi duten akordeoi joleen topaketa jendetsuan parte hartuko dute. “Zonaldean ezaguna da. Han jotzeko aukera eman ziguten eta hara goaz”, pozik Ttipikatik aldizkari honi adierazi diotenez. Horrekin batera, “beste

bi kontzertu ere izango ditugu aldameneko herri batzuetan. Besteren bat tabernaren batean”.

Etxean bezala

Bigarren urtez segidan doaz Katalunia aldera. Iaz, Seu de Urgelleko jaietako folk zonaldean izan ziren. “Zonalde horretan kontaktu batzuk egin ditugu eta handik ari zaizkigu mugitzen”, adierazi digute.

Itzultzeko gogotsu dira. “Hara joatea gozagarria da. Zonalde polita da eta katalanekin anai arriben artean bezala sentitzen gara. Etxeokak bagina bezala tratatzen gaituzte. Publiko ere ehuneko berrehunetan dantzan ikustea ederra da”. Kataluniatik bueltan, abuztuan emanaldi gehiago eskaintzekoak dira, hitzorduak oraindik zehazteke dituzten arren.

Betiko Sagardoa

SAIZAR
Sagardoa · Sidra Natural

Ondo Pasa San Joanak!

SAGARDOTEGIKO ERRESEBAK
943 373 995

BODEGA
 ● Kale-zahar auzoa, 39 · Apdo. 68
 20.170 USURBIL (Gipuzkoa)
 ● +34 943 36 45 97
 ● sidneria@sidrassaizar.com

www.sidrassaizar.com

Kalezarko festak, egunez egun

Ekainak 22, ostirala

- 16:00 Buruhandiak.
- 17:00 Herriko dantzariak.
- Ondoren, auzotarren arteko jokoak.
- 21:00 Kalezar-Andatza-Kalezar BTT gauetz.
- 22:30 Elektropapo, Mikel Laboa plazatik abiatuta.
- 23:30 Txosnaren irekiera.
- 00:00 Fan&Go taldearekin dantzaldia.

Ekainak 23, larunbata

San Juan bezpera eta Oilasko Biltzaileen Eguna.

- 10:00 Oilasko-biltzaile txikien irteera.
- 14:00 Oilasko-biltzaileen bazkaria (tiketak Kaffa kafetegian eros daitezke ekainaren 15etik 21era bitartean).



Ostiral honetako dantzaldia Fan&Go taldeak girotuko du.

- 15:00 San Juan eskearen irteera.
- 16:00 Musa (izen ematea 15:30ean itxiko da).

- 22:00 San Juan Sua. Ondoren, eskearen jarraipena.
- 00:00 Txosnaren irekiera. Ondoren, Dj Gude.

Ekainak 24, igandea

San Juan Eguna eta Umeen Eguna.

- 10:00 XVI. Ume Krosa.
- 10:30 Meza nagusia.
- 11:00 Jolasak.
- Ondoren, toka.
- 13:00 "Gorritiren showa".
- 16:00 Tailerrak.
- 18:00 Txokolatada.
- Ondoren, buruhandiak.
- 18:30 Ttipika Taldearekin dantzaldia.
- Ondoren, sardina eta sagardo dastaketa "Saizar" sagardotegiaren eskutik.
- Antolatzailea: Kalezarko Jai Batzordea.

Oharra: Jai Batzordea ez da jaietan gerta daitezkeen istripu edo ezbeharrez arduratuko.



ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak
- beira bikoitza · segurtasun beirak
- dutxa-itxiturak eta irristailuak · ispiluak
- barandak · kristal mota guztiak...

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



Goieko

INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

Ondo pasa San Joanetan!

ANDER
ARANZAZISTROKI

industria garbiketarako
sistema eta produktuak

☎ 667 680 236

**bulegorako altzariak
eta hornidura**

**paper dendarako
artikuluak**



Ugaldea Industrialdea, 11
Tfno.: 943 365 892
Faxa: 943 371 686
20170 USURBIL (Gipuzkoa)
manpel@manpel.com
www.manpel.com



**LARRAÑAGA
PLASTIKOAK E.A.**

**INDUSTRIARAKO
PIEZA MOLDAKUNTZA**

Ugaldea industrialdea, 1. USURBIL
Telf: 943 36 14 46 / 943 37 33 05
Fax: 943 37 70 01
admon@larranagaplasticos.com

**Josue
Igeltseritza**

 606 37 21 05

*Ondo pasa
San Joanetan!!!*

Fatxaden estaldurak
Estalkien berriztatzeak
Barruko berrikuntzak
Gremioen koordinaketa

Igeltseritza orokorra

Atallu pol. atallu, 28 USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

Naturaren gaueko edertasunaz gozatzeko plana

Jaiak bestela bizi eta ospatzeko modu ezinhobea, abiatzear diren Kalezarko San Juanetan. Gutxitan izan dezakegun aukera jarri digu eskura Jai Batzordeak; naturaren gaueko edertasunaz gozatzera irteteko. Txangoa programatu dute ostiral iluntze eta gau parte honetarako (ekainak 22). Kalezarko plazan hasi eta bukatuko den itzulian, bizikleta gainean Andatzako buelta egitera animatzen dituzte herritarrak.

21:00etan abiatuko dira jai eremutik, auzoko plazatik aiegia, bizikleta gainean. “Helburua ez da erabat ilunpean abiatzea”. Bizkarretik barrena, Santuenea aldera jo eta handik, aldaketarik ez bada, Txokoaldeko Guardetxe alderako bidea hartuko dute, eta handik Andatzarantz, “igoera lasaiena denez. Gero ikusiko dugu buzoieraino ailegatu edo Ziortza aldera joango garen”. Handik behera gero, Kalezarrerera buelta. Guztira, pare bat orduko txangoa izango da. “Kalezarrera itzultzean, jaie-tan pote bat hartuz” amaituko dute bira.

Taldean eta lasaitasunez
Txangorako ez da izena aurrez eman beharrik izango. Hitzor-



Ostiral honetan, gaueko 21:00etan hasita, bi orduko irteera osatuko dute mendi bizikletarekin.

BEHARREZKOAK

Mendirako bizikleta eta bidea argitzen laguntzeko argiztapen “frontala”

dura agertzea aski izango da. Birarako eraman beharrekoak; mendirako bizikleta noski, eta

bidea argitzen laguntzeko argiztapen “frontala”. Bizikletak berak ere argiztapen propioa badu hobe. Halere antolatzaileek ohartarazi dutenez, “ez da argi faltarik izango, denok batera joango gara”.

Lehiakortasunik ez, “helburua gozatzea da”

Horixe baita helburua, taldean

lasai joatea. Ez da izango irteera lehiakorra, nor azkarrago joan neurtzeko txangoa. Parte hartzaileen gogo eta gaitasunera egokituko den bira herrikoia baizik. Beharrezko segurtasun baldintzak beteta egingo dute itzulia. “Helburua gozatzea da, ondo pasatzea, festak beste era batera ospatzea”, adierazi dute antolatzaileek.

“Badakigu nondik eta nola sartu”

Proba moduan antolatu dute jaien baitan hitzordu hau, “agian ohitura bihurtzen da etorkizunean”. Polita litzateke, antolatzaileen esanetan. Bizikleta gaineko irteera honek, inguru hurbilean dugun inguruneaz gozatzeko aukera eskainiko duelako, gutxitan ez bezala, gauez.

“Parajeak ezberdinak dira gauez”

“Andatzan gauez ibiltzeak bere puntu erromantikoa du. Gauez parajeak oso desberdinak dira. Isiltasuna izaten da. Bestelako soinuak entzuteak bere xarma du. Egunez ezkutuaren diren animaliak ikusteko aukera ederra dago; baxurde

txikiak, orkatzak... Beti zer-bait agertzen da”, diote antolatzaileen esanetan.

Irteera antolatzen dabilen taldea, aurrez ibilia da noski parajeotan, ilunabar eta gau partean. 15 edo 20 lagun bildu izan dira. Taldetxoak Kalezarko Jai Batzordeari proposatu zion ekimena egitarauan txer-

tatzea, eta estreinako San Juanetako ospakizunen artean iragarri dute. “Ohituak gaude. Badakigu nondik eta nola sartu”, adierazi diote NOAUA!ri. Jendeari lasai animatzeko gonbita luzatzen diete. “Ez du arriskurik. Probatzeko gogo duenak etor dadila lasai”, animatzen dituzte herritarrak.

Asteartean abiatuko dira Santixabel jaiak

Ekainak 26, asteartea

■ 17:30 Pala Txapelketa. Kirok egokituen erakustaldia, emakumezkoen finala eta gizonezkoen finala.

Ekainak 28, osteguna

■ 06:00 Oilasko-biltzaileen gosaria eta irteera, txosnetatik abiatuta.

■ 10:00-13:30 Jolas Parkea frontoian (6-12 urte bitartekoentzat).

■ 14:00 Oilasko-biltzaileen itzulera eta bazkaria. Ondoren, oilasko-biltzaileen jolasak.

■ 15:30 Haur eta gaztetxoentzako Pintura Lehiaketa (materiala bertan banatuko da).

■ Ondoren, pintura lehiaketako sari-banaketa.

■ 18:30 Erraustegiaren aurkako manifestazioa txosnetatik abiatuta.

■ 19:00 Txupinazoa eta ikurrinaren igoera udaletxetik, gaztain-erretzaileen eskutik.

■ Ondoren, buruhandi eta erraldoiak txistulariekin.

■ Arriketai txaranga.

■ Jarraian, herriko dantzarien emanaldia frontoian.

■ 22:00 Bertsio gaua txosnaguan.

Ekainak 29, ostirala

■ 10:00 Ume-gazteei harrera. Zatoz, koadrodun zapi urdina jantzita duzula, haurren eguneko abestia dantzatzera!

■ Egunean zehar, Txu Txu trenna.

■ 10:00-13:30 Jolas parkea frontoian (6 urte artekoentzat).

■ 10:30-12:30 Ginkana (LH1etik LH4ra bitartean).

■ 10:30-12:30 Gaztetxoentzako erronka (LH5etik DBH2 artekoentzat).

■ 11:00-13:00 Helduentzako Toka Txapelketa eta Santixabel Igel Jokoa Artzabalen.

■ 12:30 Buruhandi eta erraldoiak trikitilariekin.

■ 13:30 Umeen lagunarteko bazkaria frontoian (norberak



Ekainaren 28an, goizeko 6:00etan irtengo dira oilasko biltzaileak.

JAIETAN, HIRU ERAKUSKETA SUTEGIN

“1984-2007 Santixabeletako argazki zaharren erakusketa, Zirriborro tailerrekoena eta Eguneko Zentrokoen eskulanak”

ekarrita).

■ 14:30 Karaoketa frontoian.

■ 14:30 Gazte Eguneko bazkaria txosnetan.

■ Ondoren, Motxaila Elektrotxaranga.

■ 17:30 Txokolata Askatasuna plazan.

■ 18:00 Buruhandi eta erraldoiak trikitilariekin.

■ 19:00 Erromeria Artzabalen: Elustondo anai-arrebak.

■ 23:00 Bide Batez berbena frontoian.

■ 02:00 Rude Pride eta Erromeria txosnetan.

Ekainak 30, larunbata

■ 11:00 Haurrentzako BTT bizikleta irteera Mikel Laboa plazatik.

■ 11:30 Urpekaritza Kiroldegian.

■ 12:00 Preso eta iheslarien eskubideen aldeko kantujira Kuxkuxtu txarangak lagunduta.

■ 12:30 Trikitilarien kalejira.

■ 14:00 Zikiro jana presoaren eskubideen alde Askatasuna plazan.

■ 16:00 Xakea txosnetan.

■ 18:00 ElektroPapo txosnaguan.

■ 18:00 Buruhandi eta erraldoiak txistulariekin.

■ 20:00 Euskal presoaren eskubideen aldeko ekitaldia Olanoneko plazan (Potxoenea ondoan).

■ 23:30 Kontzertua frontoian: Juantxo Skalari eta la Rude Band + Mendeku Itxua.

■ 02:30 Bad Sound System txosnetan.

Uztailak 1, igandea

■ 06:00 Eonian Elektrotxaranga.

■ 07:00 Gaupasa egin dutenen argazkia.

■ 07:30 Sokamuturra ikastola aurreko belardian.

■ 09:00 Esnadeia dultzaineroekin.

■ 11:00-14:00 Erraldoi eta buruhandien 3. Topaketa.

■ 11:00 Helduentzako Santixabel Bola Txapelketa irekia.

■ 11:30 Azpeitiko zanpantzararak.

■ 12:00 Buruhandiak dultzaineroekin.

■ 12:30 Herri-kirolak. Euskal Herriko emakume harri-jasotzaile eta aizkolarien txapelketa.

■ 14:00 Jubilatuen bazkaria Atxega Jauregian.

■ 16:30 Haur eta gazteentzako Santixabel Bola Txapelketa.

■ 18:00 Arriketai Txaranga.

■ 18:30 Herri-kirolak: idi-dema eta emakumezkoen giza-pro-

ba.

■ 19:00 Patata tortilla lehiaketa txosnetan.

■ 22:30 Bertsolariak frontoian: Jexux Mari Irazu, Nerea Ibarzabal, Oihana Iguaran eta Unai Iturriaga.

■ Jarraian, XLII. Santixabeletako bi bertsopaper lehiaketetako sariak.

■ 00:00 Berbena frontoian: Laiotz.

■ 02:30 Odolaren Mintzoa eta Rukula txosnetan.

Uztailak 2, astelehena

■ 09:00 Esnadeia txistulariekin.

■ 12:00 Soka-dantza udaletxe aurrean. Jarraian, lore eta salda banaketa.

■ 12:30 Buruhandi eta erraldoiak txistulariekin.

■ 12:30 Incansables txaranga.

■ 16:00 Musa txosnetan (Izen ematea 15:30-16:00 artean).

■ 17:30 Gizonezkoen Esku Pilota Txapelketako finalak.

■ 18:00 Gaztetxoentzako Auntoke txapelketa txosnetan.

■ 18:00 Buruhandi eta erraldoiak dultzaineroekin.

■ 18:30 Incansables txaranga.

■ 19:00 Paella lehiaketa txosnetan.

■ 23:00 Maskota erretzea eta traka Dema plazan.

■ 00:00 Zaparra eta Larrian Gozo erromeria txosnetan.

Oharrak:

■ Umeen egunerako, ginkana eta erronka daude antolatuta. Zure haurraren izena eman nahi baduzu, hauxe duzu aukera. 620 565 731 telefono zenbakira mezu bat bidalita nahikoa da.

■ 3 erakusketa Sutegin: 1984-2007 Santixabeletako argazki zaharren erakusketa, Zirriborro tailerrekoena eta Eguneko Zentrokoen eskulanak.

■ Ekainaren 29an eta uztailaren 3an prezio bereziak feriatu egunetan.

Koro Segurola Eganeko zuzendari izendatu dute

Egan literatura aldizkariak 70 urte bete ditu eta aro berri bati ekin dio. Aurrerantzean, Koro Segurola usurbildarrak egingo ditu zuzendari lanak.

Zuzendari kargua ez ezik, erredakzio kontseilua ere berritu dute. Ekainaren 15ean horren guztiaren berri eman zuten Foru Aldundian eginiko ekitaldi jendetsuan. Koro Segurola EAEko Adiskide Numerarioa eta Egan aldizkariaren zuzendari berriarekin batera, ondoko hauek hartu zuten hitza: Garbiñe Mendizabal Hizkuntza Berdintasuneko foru zuzendariak, Juan Bautista Mendizabal Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteeko presidentea Gipuzkoan eta Guillermo Etxeberria EAEko Adiskide Numerarioa eta Eganeko zuzendari-ohiak.

Koro Segurolak Joxan Artzeren poemak baliatu zituen bere mintzaldian. Idazleei, irakurleei, itzultzaileei eta sortzaileei zuzendu zien lehen eskertza: “euskararen eta literaturaren hegoak zabalik eutsiz, Egan aldizkariak 70 urte bete ahal izatea ahalbidetu duzue. Zuei guztioi esker da bizirik. Horregatik, gaur, euskal kulturgintza ere zorioneko dago”.

“Belaunaldi ezberdinekoak elkartu gara”

70. urteurrena ospatzearekin batera, Eganek etenik gabeko aro berri bati hasiera eman dio. “Hizkuntzak eta literaturak batzen gaituzten talde berri bat abiatu gara aldizkaria



Koro Segurola EAEko Adiskide Numerarioa da eta, joan den astetik, Egan literatura aldizkariako zuzendari berria. Aurrerantzean, paperean ez ezik sarean ere eskainiko dute argitalpena.

KORO SEGUROLA

**“Taldean gatzoz
asmo berriekin
baina aldizkariaren
izaerari eutsi nahian”**

gidatzeko. Belaunaldi ezberdinekoak elkartu gara. Ezaguerak uztartuz, aberastu baizik ez baitu egingo, hala uste dut, Eganek hasi duen hegaldi berri hau”, halaxe azaldu zuen Foru Aldundiko ekitaldian. “Taldean gatzoz asmo berriekin baina aldizkariaren izaerari eutsi nahian”.

Aldizkaria, argitalpen zientifikoaren esparrura

Etorkizunari begira dago Egan, dena den, Koro Segurolak ez du iragan hurbila ahaztu nahi. “Azken 25 urteotan Eganen ar-

dura eraman duten Luis Mari Mujika zenari eta Guillermo Etxeberriari dihoakie gure esker ona urte hauetan guztietan egindako lan isilagatik. Gaur aurkeztu dugun alearen ekarpenak dira horren lekuko”, aurkeztu duten Egan berritua nabarmenduz.

Urrats berriak emanez, Egan aldizkaria argitalpen zientifikoaren esparrura eraman nahi dute. “Bide horretan, ahalegin berezi bat egingo dugu aldizkariaren kalitatea hobetzeko, batik bat edukiaren, hizkuntzaren eta estiloaren aldetik”. Literatura arloko ikerketa artikulua argitaratuko dituzte aurrerantzean. “Aldizkariaren izaera ez dugu hautsi nahi eta sortze lanak ere argitaratu emanango ditugu”, Foru Aldundian eskaini zuen mintzaldian azaldu zuenez.

Aro berriari ekiteko lan talde berri bat izango du aldamenean

Koro Segurolak ondoko bide-lagun hauek izango ditu: Ana Gandara EHuko irakaslea, Iñaki Aldekoa EHuko irakaslea eta Erein argitaletxeko kidea, Izaro Arroita EHuko irakaslea, Beñat Sarasola EHuko irakaslea eta idazlea, Joseba Sarrionandia idazlea eta Juan Luis Zabala idazlea eta itzultzailea. Egan argitalpen zientifikoaren artean kokatzeko asmoa du lan talde berriak.



Garbiñe Mendizabal Hizkuntza Berdintasuneko foru zuzendariak abiatu zuen ekitaldia.

EROSKI city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Patri Milla jatetxea
· bazkariak EGUNERO
· afariak, asteazkenetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

ARRANDEGIA PELLO
ORDUTEGI BERRIA:
ASTELEHENETIK-LARUNBATERA
9:00-13:30
ASTEARTE-ASTEAZKEN-OSTEGUNA
17:00-19:30
PUNTAPAX 7, 943 54 37 94

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Euskara eta aisialdiko udal diru-laguntzak eskatzeko garaia

Hiru diru-laguntza deialdion oinarriak plazaratu ditu Usurbilgo Udalak (ekainaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean): 2017-18 ikasturtean euskara ikasi dutenentzako, behar ekonomiko bereziak dituzten euskara ikasleentzako eta ikasturte honetan zehar, aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzako diru-laguntza deialdiak.

Euskara ikasleentzako diru-laguntza deialdia

“Usurbilgo Udalak oso garrantzitsuztat irizten dio helduen euskalduntzean eta alfabetatzean eragiteari”. Hori dela eta, euskara ikasleentzako beka deialdia iragarri du aurten ere. Deialdira aurkezteko bete beharreko baldintzen berri duzue segidan:

- Usurbilen erroldatuak dauden 16 urtetik gora izatea.
- Ikastaroan zehar, %80ko asistentzia izatea gutxienez (autoikaskuntzaren kasuan aprobetxamendua ziurtatzea).
- Euskaltegiak egindako ziurtagiriaren bidez, gutxieneko aprobetxamendua gaintzea.
- 2017ko irailetik 2018ko abuz-



Begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituzten ikasleek diru-laguntzak jasotzeko aukera dute.

tuaren 31ra eginiko ikastaroak lagunduko dira.

■ **Jaso daitekeen laguntza:** %100ekoa (600 euroko mugarekin), %80ko asistentzia izan eta gutxieneko aprobetxamendua bete dutela frogatzen dutenek.

■ **Eskabideak:** ekainaren 25etik uztailaren 6ra udal erregistroan.

Behar ekonomiko bereziak dituzten euskara ikasleentzako diru-laguntza deialdia

“Usurbilgo Udalarri garrantzitsua iruditzen zaio herritarrek euskara ikastea. Gero eta gehiago dira Euskaltegiko

matrikula ordaintzeko arazo bereziak dituzten herritarrak. Bide honetatik, behar ekonomiko bereziak dituzten herritarrei euskara ikastea erraztu nahi zaie” eta horretarako egin dute diru-laguntza deialdi hau:

■ Euskara ikasleei zuzenduriko diru-laguntza deialdiko irizpide orokorrak aplikatuko dira deialdi honetan ere.

■ 2018ko uztailetik 2019ko ekainaren 30era egindako ikastaroak lagunduko dira.

■ Diru-laguntza hauetarako eskaerak Euskaltegiko matrikula egiten denean aurkeztu beharko dira. Diru-laguntzen zuriaketak, 2019ko uztailaren

3tik 5era.

■ Behar ekonomiko berezia duten herritarrei, euskaltegiko matrikula kostua aurreratuko zaie.

■ Diru-laguntza hau jaso ahal izateko, diru-sarreraren gehieneko mugak, kide kopuruaren arabera, hauek izango dira:

- Kide bat: 644,49 euro hilean.
- 2 kide: 827,59 euro hilean.
- 3 kide edo gehiago: 915,47 euro hilean.

Begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzako diru-laguntza deialdia

■ Onuradunak, Usurbilen erroldaturiko 16 urtez gorako herritarrak izango dira.

■ Eginiko ikastaroa euskaraz izatea eta Eusko Jaurlaritzak homologatua izatea ezinbestekoa izango da.

■ Ikastaroaren alderdi teorikoa gainditu eta araututako gehieneko epearen barruan titulua lortu beharko da.

■ 2017ko uztailetik 2018ko ekaina bitartean egin eta Eusko Jaurlaritzak homologatutako ikastaroak lagunduko dira.

■ Eskabideak: ekainaren 25etik uztailaren 6ra udal erregistroan.

Altsasukoak aske

Espainiako Auzitegi Nazionalak zigortu eta espetxeratzeko agindua eman duten Altsasuko gazteak aske nahi dituztela exijitu zuten usurbildarrek, ekainaren 13an Mikel Laboa plazan atara zuten ondoko argazkiaren bidez. Altsasuar espetxeratuei elkartasuna adieraztearekin batera, eskandaluzko sententzia salatzen kalera irtetera deitzen zuten. Altsasukoak aske uztea exijitzeko larunbatean Iruñean egindako manifestazioarekin bat egin zuten.



Altsasukoak aske uztea exijitzeko larunbatean Iruñean egindako manifestazioarekin bat egin zuten.

Azken ostiraleko elkarretaratzetik ez, ekitaldia jaietan

Jaiak tarteko, Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak hilero azken ostiraletan, euskal preso eskubideen alde deitu ohi duen elkarretaratzetik ez da izango ekainean. Festen baitan deitu dute ekitaldia; hilaren 30ean, 20:00etan Potxoenea ondoko Olanoeneko plazan. Euskal preso eta iheslarien eskubideen alde ospatuko den kantu-jira eta zikiro janaren ostean.

Usurbil K.E.-ren denboraldi amaierako afaria

2017-18 kirol urtea ospakizun egun baten bueltan borobilduko dute urtero legez, herriko kirol taldeek. Ekainaren 23an izango da. Usurbil K.E.-k, besteak beste, denboraldi amaierako afaria antolatu du 21:00etan, Usurbilgo frontoian. Txartelak salgai dituzte jada, Txiriboga, Benta, Bordatxo eta Aitzaga tabernetan; helduenak 20 eurotan, 14 urte arteko gazteenak 12 eurotan. Honako menua dastatu ahalko da: hestebete-platera, otarrainxa egosiak, txanpiak saltsan, lumagorri oilaskoa, saiheskia, letxuga eta tipula, ijito-besoa izozkiarekin, edaria, kafea eta kopa.

Zorionak

“Usurbil Kirol Elkartetik, bai Kadete mailako Territorial mutilak Federazio Kopa irabazteagatik eta bai jubencil



“Hurrengo denboraldian eskubaloian jolastu nahi duten neska-mutilak gonbidatzen ditugu parte hartzera”.

ESKUBALOI TADEA

“Usurbil K.E.-k denboraldi amaierako afaria antolatu du larunbat honetarako Usurbilgo frontoian”

mailako mutilak Gipuzkoako Kopa irabazteagatik zoriondu

nahi ditugu. Bestalde, Jubencil nesken taldea Gipuzkoako Kopako txapeldunorde gelditu dira eta Kadete mailako mutilak Euskal Ligan Espainiako txapelketako faserako sailkatu ziren eta hauek ere aipatu nahi genituzke. Aurrera neska-mutilak!!”, zoriondu dituzte Usurbil K.E.-tik.

Jokalariei deia

“Hurrengo denboraldian eskubaloian jolastu nahi duten neska-mutilak gonbidatzen ditugu parte hartzera. Senior mailako bai neska eta bai mutilen taldeak berrindartu eta martxan jartzera animatu nahi zaituztegu”, Usurbil K.E.-tik gonbita luzatu dutenez.

Garaipenen asteburua, Buruntzazpikoentzat



Txirrindularitza taldeko kide Asier Pozok bi garaipen erdietsi ditu asteburuan ospatu diren Gipuzkoako Txapelketetan; larunbatean Zestoan (ekainak 16) ospaturiko 58 kilometroko saioan eta biharamunean ospatu zen Bergarako erlojuz kontrako banakako proban. Bi txapelketa hauetan lehen postuetan amaitu zuten baita kide gehiagok. Laugarren Beñat



Carbayeda eta hamabosgarrenean Jaime Romerok Zestoako proban, “biek lasterketan zehar eginiko ihesaldien ostean”.

Pozo, lehena Bergaran

Begarako lasterketan, Pozok aipatu moduan lehen postuan amaitu zuen, “6 kilometroko bidea 8 minutu eta 29 segundotan egin ostean, batzaz beste 42,44 kilometro orduko abiadu-



ran”. Seigarren postuan sailkatu zen Jaime Romero eta zortzigarren Beñat Carbayeda. Kadete mailako taldea lan bikaina egiten ari dela eta lan horren ondorioz, emaitza onak izaten ari direla nabarmentzen dute Bazpi taldeak. Baita infantil mailan ere. Larunbatean Lezon jokaturiko txapelketan Daniel Fursenko kidea nagusitu zen. Irudiak: Bazpi.

Deialdia alebin futbolarietzat

2007an eta 2008an jaiotako alebin neskei eta 2007an jaiotako alebin mutilei zuzendutako deialdia plazaratu du Usurbil F.T.-k. Ekainaren 26rako arratsaldeko 18:00etan bilera deitu du Harane futbol zelaian.

Tximeletako nesken denboraldia

Tximeleta gimnasia erritmikoko neskek denboraldi bikaina burutu dute. “Tximeletatik guztiak zoriondu nahi ditugu eta bereziki Veronika Garcia eta Paula Sagaseta”.

Veronica Gipuzkoako txapeldunorde izan da eta Paula Sagaseta Gipuzkoako txapelduna eta, besteak beste, Euskadiko lehena pilotarekin.

Uztailean Errioxara asteburu pasa Andatzakoekin

Dagoeneko zabalik dago, Andatza M.K.T.-k uztaileko antolatutako duen hurrengo txangorako izen ematea. Oraingo honetan, bi eguneko asteburu pasa iragarri dute Errioxara aldera. Segidan dituzue xehetasunak:

Epea: uztailak 7, 8.

■ Abiatzeko hitzordua: autobusez, uztailearen 7an 7:00etan Oiardo Kiroldetigitik.

■ Ibilbideak: Valgañón-Posadas (19 km), Cubilla-Pancorbo (13 km).

■ Izen ematea: uztailearen 3a baino lehen 75 euroko ordainketa egin kontu zenbakio-tako batean:

Rural Kutxa: 30080259 1630 0543 0321

Kutxabank: 20955069 0710 6848 9805

■ Oharrak:

-Ostatua pentsio erdian, "Albergue Ezcaray" gunean.

-Plaza kopuru mugatua.

-2 eguneko ibilbideen otorduak norberak eraman behar ditu.



Irudian, Udala-Arlaban ibilbidea osatu zuen taldea. Argazkia: andatzamendizale.info

IZEN EMATEA

"Uztailearen 3a baino lehen eman behar da izena. Prezioa 75 euro"

-Andatza M.K.T.-k antolaturiko irteeretan parte hartzeko derri-

gorrezkoa da, mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean edukitzea. "Federatu gabe dagoenari tramitea egingo diogu, hala nahi badu".

Informazio gehiago:

andatza@hotmail.com

andatza.com

Antolatzailea: Andatza M.K.T.

Unai Sagarzazu bigarren sailkatu zen Euskadiko Triatloi Txapelketan



23 urte azpikoen artean bigarren izan zen. Podiumaren ezkerrean da Unai.

Baxurde Txiki Taldeko kidea denboraldi bikaina osatzen ari da. Aurreko asteburuan, Euskadiko Triatloi Txapelketa jokatu zen Lekeitio eta 23 urte azpikoen mailan bigarren sailkatu zen.

Aste batzuk lehenago, hiru-

garren izan zen Gipuzkoako Txapelketan, sprint proban. 23 urte azpikoen artean, ordea, bera izan zen lehena. Igande honetan, ekainak 24, Usurbil zeharkatuko duen Onditz Triatloi Olinpikoan hartuko du parte.

Euskal Herriko trinkete txapelketan, jaun eta gabe



Mikel Landa-Enrike Huizi bikotea.

Pagazpe pilota taldeko bikotea aise nagusitu zen Euskal Herriko trinkete txapelketan. Larunbatean jokatu zen finala Iruan. Hauxe izan zen emaitza: Huizi-Landa 40 (Pagazpe) Ziarrusta-Etxeberria 15 (Dima)

Kirol elkarten denboraldi amaiera bateratua

Aurreko denboraldira arte, kirol elkarte bakoitzak bere aldetik agurtzen zuen denboraldia urte garai honetan. Oraingoan ordea, estreinakoz eguna modu bateratuan ospatuko dute, Usurbil Futbol Taldeak, Usurbil Kirol Elkarteak eta Pagazpe Pilota Elkarteak. 2017-18 denboraldia elkarrekin agurtuko dute larunbatean (ekainak 23). Goizez, 11:00-13:00 artean jokoak iragarri dituzte herrian, "eguraldi txarra egiten badu Kiroldetigian" ohartarazi dute. Eta goiza borobiltzeko bazkaria denek elkarrekin 14:00etan Askatasuna plazan. Otorduan parte hartzeko gonbita, 2006, 2007, 2008 eta 2009an jaiotakoei zuzendua dago.

Aitor Arangurenen debutaren ondoren, afaria Aginagan

Ekainaren 23an debutatuko du profesionaletan, Tolosako Beotibarren. Autobus zerbitzua antolatu dute, 6 euroren truke. Partidarako sarrerak ere aurrez eskuratzeko aukera dago. Bueltan, afaria antolatu dute Aginaga Sagardotegian. Prezioa, 20 euro.

Argibide gehiagorako:

■ 695 723 192 (Aitziber).

■ 680 347 768 (Leire),

■ Aginagako Arrate, Aitzaga.

"Nordic Walking" ikastaroa

■ Ekainak 28: 16:00-19:00.

■ Ekainak 29: 17:00-19:00.

■ Prezioak: bazkideek, 20,50 euro. Bazkide ez direnek, 41 euro.

■ Makilen alokairua: 5 euro.

■ Informazioa: Oiardo Kiroldetigian, ekainaren 24 arte.

ETXEBIZITZA

Salgai

Erreka Txiki 13. Duplexa salgai Usurbilen. 132 metro², 80 solairu nagusian; 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Garaje itxia etxerako zuzeneko sarbidearekin eta trasteroa. 320.000 euro. 646 305 465.

126m²ko pisua salgai Aginagan, 65m²ko ganbararekin. Oso eguzkitsua, dena kanpoaldera. Berritu beharra. Prezioa 186.000. 659257889 edo 680742504.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro² lokala salgai Munalurran. Etxea bihurtzeko baldintzak betetzen ditu. Prezioa: 68.000 euro. 943 916 182 (Jon).

90 m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m²-terraza, 8 m² trastelekua eta bertan 33 m²-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 359.000 euro. 679002101.

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukal-

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

de handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Alokairuan

Etxebizitza bat alokatzen da Bizkarre kalean. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, jangela-egongela handia, trastelekua, igogailuarekin. Tel. 650 825 663.

Pisu bat alokatzen da Santuenean. Tel. 679 366 415

Abendurako pisua alokairuan hartu nahi dut, Aginagan, Usurbilen edo Orion. 690 367 952

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702

807.

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negoio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 gelatoko etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atarekin. Goiko kalea 2.

676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektriko eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatziki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro² lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negozio-garriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m² karra-tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrerera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Neska euskalduna, Usurbilen umeak zaintzen egingo nuke lan

udara honetan: ekaina, uztaila edota abuztuan (goiz, arratsalde edo orduka). 617263123.

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Etxean, ospitalean, gauetan, externa bezala, orduka edo asteburutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo externa bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko esperientzia. Arduratsua, erreferentzia onekin. 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko. Ospitalean, etxean, gauetan. Garbiketa orokorrean ere bai. 671 763 558

Pertsona helduak zainduko nituzke, asteburu, jai egunetan eta gauean, baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404 015.

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztaila, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziakin. 662 910 181

Interna bezala lan egingo nuke. Esperientziarekin. Paperak eguneratuta. Tel. 682 723 520

Heriotzak

Juan Irazusta Alkain

89 urterekin hil zen ekainaren 13an Usurbilen



Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatrico eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsalde. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsalde. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauetan, asteburutan, externa bezala edo garbiketara lanetan. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziak. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herritar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketara lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketara egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabilta. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketara lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperentziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketara lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketara lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oporretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrik emateko prest egongo litzateke: euskeran, gaztelan, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketara. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelohetik ostiralera. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketara lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperentziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketara lan egiteko. Interna moduan, orduka edo gauetz. 677 624 965

Neska farmazialaria seguituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketara, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Geriatrico laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldari bezala). 688 654 698.

dearen ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketara lan egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketara, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketara lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

BESTELAKOAK

Erloju bat galdu dut Santuenean. GPSa eta pulsoimetroa. Souto Gramin markakoa, beltza. Aurkitu baduzu deitu: 662 039 829.

Gerezi koloreko logela bat salgai. Egoera onean. Ohea, idazmahai, armairua eta apal bat. 400 euro. 600 320 967

Udarregi Ikastolan klase partikularrik emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

Errege sagar ekologikoa eta etxeko membrilloa salgai. Interesatz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortxadora salgai. 943363201

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehene ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udalzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Ambulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ilehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztxetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK eskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Egunekeo Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 21	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Ostirala 22	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Larunbata 23	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Igandea 24	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Astelehena 25	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Asteartea 26	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Asteazkena 27	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ekainak 21 - Uztailak 01

Osteguna 28	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola 9. Lasarte
Ostirala 29	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Larunbata 30	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Igandea 01	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda ekaina

22 ostirala

- San Juan jaiak Kalezarren. Ikus 16. orrialdea.
- Askaria Bihurri ludotekan. 17:00etan, bazkideentzat.
- Erakusketa Sutegin: pintura eta arte kuantikoa. 16:30-20:00.

23 larunbata

- San Juan jaiak Kalezarren. Ikus 16. orrialdea.
- Hitzaldia: "Elkarguneko feminismoa: Aitor Arangurenen debuta maila profesionalean. Ikus 23. orrialdea.
- Erakusketa Sutegin: pintura eta arte kuantikoa. 10:30-13:00/16:30-20:00.

24 igandea

- San Juan jaiak Kalezarren. Ikus 16. orrialdea.
- Erakusketa Sutegin: pintura eta arte kuantikoa. 10:30-13:00/16:30-20:00.

Zumartekoak, kalejiran

2017-18 ikasturtea agurtzeko azken emanaldia eskainiko dute Zumarte Musika Eskolako kideek. Ostegun honetan kalejiran ibiliko dira lehenbizi, eta ondoren talde instrumentalen txanda izango da. Azken hauek Sutegin arituko dira.

Ekainak 21, osteguna

- 17:45 Tritikitixa-pandero talde eta txarangaren kalejira.
- 18:30 Talde instrumental desberdinen emanaldia Sutegin.



Aurreko astean hasi ziren ikasturte amaierako jaialdiak. Ostegun honetan trikitixa-pandero taldekoak kalejiran ibiliko dira.

Jai berdinzalegoak antolatzekeo xedea

Ekainaren 26an asteartearekin, jai berdinzalegoak antolatzekeo bilera egingo dute. Gogoetarako espazioa sortzeko saioa Potxoenean egingo da eta Farapi kooperatibako kideek hartuko dute parte.

Ekainak 26, asteartea

- Arratsaldeko 17:30ean.
- Potxoenean.
- Antolatzailea: Usurbilgo gazte mugimendua.

Askaria Bihurri ludotekan

Ikasturtea bukatu eta udako oporren abiatzea, askari eder baten bueltan egingo dute Bihurri ludotekan. Ekainaren 21ean, arratsaldeko 17:00etan hasita. "Zatoz! Oparitxoak ere egongo dira!", iragarri dute.



Datozenak

Bueltan dator

Laboaren Uztaila

Uztailako ostegunak Mikel Laboa musikaz girotuko duen ekimena bueltan datorkigu. Antolatzaileek izango dugun eskaintza aurreratu dute jada.

Mara, Joseba Irazoki, Mikel Uraken eta Sokartean

Uztailaren 5ean Mara dator, 12an Joseba Irazoki, 19an Mikel Uraken eta 26an Sokartean. Emanaldiotaz doan gozatu ahalko da, antolatzaileek gogorarazten dutenez "modu autogestionatuan eramaten dugu proiektua aurrera". Gastuei aurre egiteko ordea, euro bateko boletoak jarriko dituzte salgai kontzertuetan. Trukean, disko sorta ederren zozketan parte hartzeko aukera izango da.



Joseba Irazoki uztailaren 12an arituko da Mikel Laboa plazan.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Otar-Goxo
Elkagaiak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Edertu zaitez!

INDIBA
DEEP BEAUTY
PROFIC BODY CARE SYSTEM

DESKONTU BEREZIAK

· ZELULEN BIRSORTZEA · LIPOLISISA · MODELAKETA · ERREAFIRMAZIOA
· AZALAREN TONIFIKAZIOA · OXIGENAZIOA · HIDRATAZIOA · LIFTING

✓ ZELULITISAREN GUTXIAGOTZEA ✓ AURPEGIA GAZTETZEA ✓ ZIMURREN LEUNKETA
✓ BULARREN ERREAFIRMAZIOA ✓ SILUETAREN HOBEKUNTZA ✓ AZALAREN INDARTZEA

www.enarestetika.com

Enar
ESTETIKA

BESTE TRATAMENDUAK: PRESOTERAPIA · TERMO LINEA · ELEKTROESTETIKA · LASER TERAPIA

Munalurra 2, USURBIL 943 57 16 80



Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

**JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA**

Artzabal baserria 626 603 600

**UDABERRI BEGIRA
JARRI ZURE AZALA PREST**

AURPEGI GARBIKETA: 35€
GORPUTZGARBIKETA: 35€
PRESOTERAPIA:
SESIO 1: 20€ 10 SESIO: 125€

· PEDIKURA · MANIKURA,
· BETILEEN TINTAKETA IRAUNKORRA
· MIKROPIGMENTAZIOA
· LASER IODO · DEPILAZIOAK

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Egurditan irekial
Nagusia 8, Usurbil Tel: 943 36 36 41



Elexpe
ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

TXANPU ETA LOZIO BITAMINADUNA
Eskola adinerako berezia

- Iturburuko ur mineralarekin
- Kontserbagarririk gabea
- Belaunaldi berriko formula:
Te arbolez, "Neem"-ez, Kamamila
destilatuz eta Bisabobolez indartua

GOLDWELL
ELUMEN

mista

Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951

Zorrien
aurkako lozio
ORGANIKOA
KUNDA

EKAINAK 29-30

FORTNITE



URBIL-EKO HYPE STATION®
EREMURA **FORTNITE** LEHEN
ELKARRETARATZEA IRITSI DA

Ostirala 16:00etatik 20:00etara
Larunbatean 11:00etatik 14:00etara
eta 16:00etatik 20:00etara

Informazio guztia urbil.es-en



ESKUTIK:



KOLABORATZAILEAK:



THRUSTMASTER®

PLAYSEAT

